

[b]

**BARREN**

ELGOIBARKO ASTEKARIA

620. zkia.

XV. urtea

2007ko ekainaren 29a



Elgoibarko lesbiana bat

**«Gizarteak ez gaitu onartzen»**



**RENAULT**  
ocaSiÓN

Mégane Sedan Confort Dynamique 1.5 dCi 100zp	2005	15.600 €
Grand Scénic Confort Dynamique 1.9 dCi 120zp	2005	18.500 €
Espace Expression 1.9 dCi 120zp	2006	22.860 €
Kangoo Combi ICE 1.5 dCi 65zp	2006	12.500 €

Scénic  
Confort Expression  
1.5 dCi 100zp

**14.600 €\***

2005ean matxikuletua



\*Tenderentzako Salmenta Prezioan sartuta daude transferentzia-gastuak. Eskaintzak lokalki agortu arte balio du. Irusten diren modelak: Scenic Dynamique.



# Eraman DVD bat

ibilgailu bat  
erosita\*

\*Eskaintza lokalki agortu arte balio du. 03/06/30 baino lehen egindako eskarietan balio du.

compromiso RENAULT Garantia ocaSiÓN hasta 24 meses

**AUTOBERRI** ARRASATE - AZPEITIA - ELGOIBAR - IRUN - TOLOSA  
Eta bere Agentzia Sarea BERGARA - LAZKAO - DIARTZUN - ZARAUZ

jaixak ondo pasau!

Aurrez enkargatuz gero hobee!

# SAN PEDRO

J A T E T X E A

**SAN PEDRO AUZOA**  
Tel. 943 740 010  
ELGOIBAR





IMANOL LARRAÑAGA

Uxue, inporta ez bazaizu, une batez begiak itxi eta 90 urte inguru egingo dugu atzera. Garai hartako Elgoibarko baserri bat imajinatu behar dugu; eta, bertan, sei urteko neskatxo bat bere ama eta bederatzia anai-arrebekin. Aita hilda dago.

Neskatxoak anai-arrebekin jolasean jarduteko edadea eta gogoia dauka, baina ezin du. Sei urte bakarrik izan arren, abar-ketak josten pasatzen du eguna amarekin batera, familia aurrera ateratzeko. Eta eguna ezer ez dela, gaueko ordu asko ere kandelen argipean ematen dituzte biek, begiak itsutu beharrean. Eskolara joateko astirik ere ez dauka; amak errezo batzuk erakutsiko badizkio ere, gainontzeko ikasgaiak *bizitzako liburutik* ikasiko ditu, berak bakarrik.

Zabal ditzakezu begiak, Uxue. Gure amama hil zela urtea beteko da uztailean, eta hil aurretik egin nion grabazioa entzuten egon nintzen atzo. Eta amamaren ume-tako kontuak entzuten niharduela, gure ilobarekin akordatu nintzen. Nahiak ere sei urte ditu, baserriko neskatxoak moduan, baina ez du abarketarik josten. Bilbotik Elgoibarrera etorri berri da eta hilabete emango du *Atxutxiko* lagunekin jolasten. Lainorik ez dagoen egunetan birramona pozik egongo da zerutik begira, berak egin ez zuena bilobak zelan egiten duen ikusten.

Uxue, akorduan al daukazu zertan ematen zenuen eguna sei urterekin?

## ZOZOAK BELEARI...

«Uxue, zertan ematen zenuen eguna sei urterekin?»

IMANOL

«Zorionez, memoria ona dut, Imanol»

UXUE



UXUE ALBERDI

Zorionez, memoria ona dut, Imanol. Oraindik oroi dezaket hiru limoi brodaturik zituen soineko urdina. Baita artilezko jertse hura ere, anaiari lepoan azkura egiten ziona. Oroitzen dut ostegunetako purearen zaporea, baita orain Leku Eder dagoen tokian zegoen baratza ere. Eta Pedro toma-teak biltzen.

Filme bat da iragana.

Ez da gertatu zena, irudi haietatik guk sortu duguna baizik. Horregatik, jostunak behar ditu iraganak, fotogramak josi eta koherenteki elkarlotuko dituzten memoria-ren jagoleak.

Tamalez, gero eta filma komertzial gehiago egiten da, eta ximurrek eta ile urdinek ez ei dute patrikarik betetzen. Mar-txa honetan, etorkizuneko historia *Salsa ro-sako* eskandaluek eta futbol-ligen emaitzek eraikiko dute.

Ni ere aspaldiko ahotsen atzetik nabil. Zuri-beltzean egindako argazkiz bete zaizkit begiak. Grisagoak ditut orain.

Elgoibarko baserrietan ez, baina Gertariako portuan eta hara amarraturiko arrantzuntzietan nabil bila. 60 urte beranduago. Aiton-amonekin solasean. Kafe usainean.

Zaharren kalaka iragana irudituko zai-gu, baina nik aitonaren irribarre berbera dut, eta hondartzan lehertu berri den olatu hori duela 50 urte ere itsasertz berean lehertu zen.



BIZITZAREN ONENA EZ DA BILATZEN, AURKITU EGITEN DA



Anonimoa

## Euskal festak bai, euskal jaiak ez

Albiste pozgarria jaso nuen BARRENen, EUSKAL FESTAK idatzita dakarren 1907ko domina baten aurkikuntza dela eta. Pozgarria, ez 1907koa delako, euskeraz dagoen bezala idatzita dagoelako baizik. Ez dut esango aurkikuntza hau, Arabako Iruña-Veleyako erromatarren garaiko euskal hitzen aurkikuntza bezain inportantea denik, baina, jai hitzaren egungo erabilera okerra salatze oso ondo dator. Gaur normaltasun osoz ikusten dugu jai hitza festaren ordeztu erabil-tzen, okerreko esanahi bat emanez.

Jai eta festa ez da gauza bera, eta horregatik bi hitzekin adierazten ditugu euskeraz. Festa egiteko ez da jai izan beharrik, eta jai delako ez da zertan festa egin. Gazteleaz ordeztu hitz bakarria erabil-tzen da bi esanahiak adierazteko (festa), eta hortik dator okerra. Baina festa hitzak erdal kutsua duenez, garbizalekeriaren eraginez, gure hiztegitik kendu egin dugu eta jai hartu, hitzaren zentzua aldatuz eta erdal moldeetara makurtuz.

Ez da nahiko bi euskal hitz elkarrekin lotzea euskal hitz bat osatzeko, euskal jaiak hitzarekin gertatzen den bezala, eta horra erderakadatik ihesi erderakadaren zuloan nola jausi garen. Badirudi 1907an oraindik zorionez Elgoibar ez zegoela garbizalekeriaren birusak jota, eta hor dugu lekuko aurkitutako domina. Garbi ipintzen du EUSKAL FESTAK eta ez EUSKAL JAIK.

Ondo legoke bada ehun-urteurren honetan, elgoibartar haiek ondo erabil-

tzen zuten festa hitzari zor zaion lekua ematea. Ea aurten San Bartolome jaietan festa izaten dugun.

**JOXE MARI ARRIZBALAGA URBIETA**

## Segurtasun falta tren geltokian

Betidanik izan dut gustuko tren ez bidaiatzea, baina saihesteko moduko ez-behar baten ondorioz denboraldi baterako behintzat horretarako gogoia kendu didate.

Ekainaren 23an Zarauztik bueltan genduzen hamarretako trenean, hiru lagun, nire senarra, 22 hilabeteko alaba eta ni. Geltokira iritsi eta ateak ireki zirenean hiru lagun edo gehiago agian alabaren gainera jausi ziren, bultza egin zituzten eta lagun batek eta biok kalteak jasan genituen. Nik etsipenak jota tren-gidariaren atea jo nuen laguntzera irten zitezen; izan ere, ezin ginen mugitu eta ezin nuen negarrez ari zen alaba besotan hartu. Ezbeharraren ondorioz lagunak zauri bat du hankan, jende-oldea etorri ahala hanka trenaren eta nasaren artean sartu zuelako. Ni neu hurrengo egunean eskuko minez sendagilearengana joan nintzen eta kontusioa dut esku-turrean eta atzamarrak handituta.

Bazkari batera joan ginen eta horregatik ez genuen autorik eramaterik nahi izan, horregatik hartu genuen tren.

Hortaz, dagokionari zera esan nahi nioke: zentzudunak izan gaitzen eskatzen diguzue, ez dezagula autorik hartu

eta garraio publikoa erabiltzeko. Baina euren esanak betetzen ditugunean, ordainetan ematen diguten zerbitzua lotsagarria da.

Ondorioak ez ziren hain larriak izan jainkoari eskerrak, baina egunen baten benetan larria den zerbaite gertatuko balitz alperrik litzateke damutzea, aurrez ikus daitezke gauza horiek guztiak.

Eskatu ez ezik erregutu ere egingo nuke behar diren neurriak hartzea denon segurtasuna eta ongizatea bermatzeko.

**SONIA VAZQUEZ**

## Azalpen kaxkarra

Ekainaren 26ko Diario Vascon Sanlo EKTren azalpenak irakurri ondoren, nire protesta azaldu nahi dut Tecnifuelle taldeko jarraitzaile moduan, azalpen hauetan egon den gardentasun faltagatik. Etxe guzietan daude arazoak eta ez dago lau haizeetara zabalduta beharrik, baina batzuk ondo geratzeko errealitatea ezkutatzeko tamalgaria iruditzen zait.

Urtetik urtera jarraitu zaituztegunok eskerrak eman nahi dizkizuegu Tecnifuelleko guztiari, eskaini dizkiguzuen momentu alai guztiengatik eta baita momentu urduriengatik ere. Uste dugu ez duzuela hau guztia merezi. Aupa Tecnifuelle!

**A. A.**



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia**.



**barren**

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04  
E-posta: [barren@elgoibarkoizaria.com](mailto:barren@elgoibarkoizaria.com)  
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04 • E-posta: [barrenpubli@elgoibarkoizaria.com](mailto:barrenpubli@elgoibarkoizaria.com)

Argitaratzailea:



ELGOIBARKO IZARIA  
S.L. C/ P. E. P. 12

**ZUZENDARIA** Enrique Bert **KAZETARIK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Irati Agirrezaldegi **PUBLIZITATEA** Eider Iriando **MAKETATZALEA** Jaione Unanue **KOLABORATZALEAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Garmendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larranaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jaxone Osoro, Iñigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives **INPRIMATEGIA** Gertu **TIRADA** 4.650 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



## KEXAK

• **Gazte batzuk sua egin zuten IMHko pergolan eta dena zikin-zikin laga zuten:** "IMHtik gure kexa azaldu nahi diegu sua egin zuten gazte eta gurasoei, izan ere, jakin badakigu, guraso batzuk euren seme-alabei laguntzen egon zirela sua prestatzen. Ikusi dugu sutea antolatzeko gai izan direla baina ez dira gai izan hurrengo egunean etorri eta dena garbi eta txukun, aurkitu zuten bezala lagatzeko". Ez da izan hau jaso dugun kexa bakarra. Santa Ana kalean egindako suak ere oztopoak eragin zituela jakinarazi digute.



• **Txakurrek San Roke ermita inguruko lurra zulatzen dute:** "San Roke auzoko ermita inguruan dagoen zelaia zuloz beteta dago. Jende askok bertara eramaten ditu txakurrak eta lur guztia zulatzen dute. Txakur jabeei kontu handiagoz ibiltzeko eskatu nahi diet. Mila esker."

• **Udaltzaingora joan nintzen isun bat ordaintzera eta bertan zegoen udaltzainak ez zekien euskaraz:** "Lotsagarria! Udaltzain neska bati euskaraz hitz egin nion eta berak gazteleraz erantzun zidan. Udaltzainek euskaraz jakin behar dute".

• **www.elgoibarreb.net webgunean agertzen diren komentario asko errespetu falta handikoak dira:** "Oso tresna interesgarria iruditzen zait internet, eta asko erabiltzen dut. Kanpoan egon izan naizenean ere, www.elgoibarreb.net webgunean sartu izan naiz herriko berriak jasotzeko, eta benetan, izugarri gustatzen zait atari digital hau. Baina pena handia hartzen dut jendeak egiten dituen komentarioak irakurtzean. Ezizenen atzean ezkutatuta sekulakoak esaten dituzte, pertsonak zaborra balira bezala tratatzen dituzte, eta min ematen dit. Hori kontrolatzea zaila da, baina arduradunek zerbait egin beharko luketela iruditzen zait".



## TXALOAK

• **Txalo bat Ander Zubizarreta maisuarentzat:** "Herri Eskolako 6B gelako ikasleek eskerrak eman nahi dizkiogu Ander Zubizarretari. Datorren urtean BH Institutura goaz, baina ez zaitugu ahaztuko. Mila esker. Aupa 6B".

• **Herri Eskolako Joserra irakasleari eskerrak eman nahi dizkiote:** "Oso ondo portatu da gurekin ikasturte honetan eta gauza mordoa erakutsi dizkigu. Mila esker zure lanagatik. Joana, Rocio eta Jose Manuelen partez".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

**E-posta:** [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)  
Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR  
☎ 943 74 41 12




Elgoibarko  
Udala



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza





## Eskertzak

“Egunon, Josu etxean al dago? Bere gertuko senideren bat al zara? Mesedez, etor dadila lehen bailehen Gurutzetako Ospitalera; organu emaille posible bat dago.”

Telefonoa eskegi eta negar jarioak, barreak, ilusioak, beldurak, salto eta dantza egiteko gogoak, garraixi egin gura... eta guztia segundu batean. Ospitalera korrika, egun osoa frogatan eman, konpatiblea ote den? Ala ez? Beldurra eta gaueko 12etan... giltzurruna zuretzako da, Josu! Negarrari eutsi ezinda saltoka hasi gara denok.

Gaur egun 22 urte ditu, ikasketak egiten ari da, lagunekin ateratzen da, neskalaguna dauka eta dena zuri esker, ezezagun hori. Ni hiltzen naizenean zure nebak, seme-alabek edo lagun on batek behar baditu behintzat, nire organuak listan izango ditu, zain, nere nebak zureak izan dituen bezela.

Zauden tokian zaudela ere, eskerrik asko.

Ainara Sedano

# BOTAINK!

Zuk ere negar egin al duzu Reala bigarren mailara jaitsi delako? Hau da botaink! atalean luzatu genuen galdera eta hona hemen jasotako erantzun batzuk:

**Bat:** Negar ez, baina bihotzean zulo txo bat dudala esan dezaket. Badakit kirol bat besterik ez dela, bizitzan gauza garrantzitsuagoak direla, futbolariak diru pila irabazten dutela... baina bihotzean min dut.

**Berrigori:** Honekin aukera ederra daukate: diru gutxiago sartuko denez, harrobiari begiratu eta etxeko jendearekin lanean hasi beharko dute.

**Lur:** Pena eman dit Realeko zaleengatik (ni ere banaiz), baina taldeak ez zuen besterik merezi. Gauzak ezin dira okerrago egin!

**Yuyu:** Datorren urteko partidarik interesgarriena Eibar eta Realaren artekoa, lpuruan jokatu daben.

**Ion:** Ta bai tristia izango da futbolagaitik ola egotia baina nerretzat Reala futbol talde bat baino gehixo da. GORA ERREALA!!!!

**Lotina:** Jugadore batzuk bota egin bearko lituzkete diruan bakarrik pentsatzen dabenak

[www.elgoibarren.net](http://www.elgoibarren.net)

[www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)



## [AKORDATZEN NAIZ]



### MANOLO UNZILLA

1924an jaioa

### «Familixia eta euskeria»


**E**txian beti euskeraz. Eskolan ez. Euki gendun maixu bat, fatxa txarri bat zan haura. Azkenian bota egin zigun eskolatikan. Zela gerratian ibili giñan gorrixekin, eta hau eta bestia, bota egin zigun. Eskerrak orduan abogaua zauan, Etxaniz. Eskola partikularra zakan, eta hara sartu giñan eta hantxe ibili giñan gero.

Gero, gure aittak eskopetan lan egitten zaban, eta beti zauan krisixa eskopetiana. Gero, erosi zaban mando haundi bat, eta hasi zan rekadista Eibarrera. Guk zortzi edo bederatzirte eukiko gendun, baiña etortzen zanian iluntzixan, akorduan dakat, ne-

guan eta, bultuak eta trabak kentzen eta kortan sartzen ibiltzen giñala. Mando zahar batekin eta karro zahar batekin ibiltzen zan. Holaxe ibili zan aitta gerria erden arte.

Eibarren Baluarte Obrero kooperatiba modura sortu zaban eskopeta egiliak, eta han egon zan sartuta aitta. Han ere gorabehera haundixak. Eta partiduekin: reboluziua zala, bestia zala... Aitta aurrian sartuta beti, beti bildurrez.

Gure amak asko sufritu zaban, baiña 100 urte hartu zittuan! Eta aitta 40 urtekin hil zan, kartzelan. A zer aldia batak bestiakin!



## [GURE BERBAK]

### Fonologia (15)

Fonologiaren arluari amaieria emateko, bigarren maillako billakabide eta altemantzixa batzuk ekarriko dittugu aste honetan eta hurrenguetan. Arau bat osatzeraiñoko indarik ez dauken billakabidiak dira: hitz jakin batzuetan gertatzen dira, eta zenbaittetan hitzun jakin batzuetan bakarrik. Ahoskera kontuak izaten dira batzuetan, batez ere azkar samar hitz egitterakuan gertatzen diranak.

- **-M- / -NB- ALTERNANTZIA**

*zenbat / zemat*

Altemantzixa honek azaldu ditzake alderantzizko (hiperkorrekzioko) adibide batzuk: *kanbioi*, adibidez.

- **ILD / ILDD**

*bilddur / bildur - bilddots/bildots*

- **KONTSONANTE TALDIAK SORTZIA**

*endredau / aldrebesh(tu) / Endrike*

- **-METATESIXAK**

*prepezioz / perpezioz  
Gabriela / Grabiela*

- **G / R ALTERNANTZIA**

*eroki / egoki*

*Hau bastante eroki ikuste(n) naban, eta andriari esan nion.*

- **T / P ALTERNANTZIA**

*ahizpa / ahizta*

*Jesus Mari Makazaga*



Tel: 943 74 10 11

- ☺ IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
- ☺ ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. **AZTERKETARIK GABE!**
- ☺ IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

**Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!**

*Batoz informazio eske!*

EKAINAK 28, GAY ETA LESBIANEN NAZIOARTEKO EGUNA

## ONARTZEN AL DITUGU HOMOSEXUALAK?

*Beraiak ezetz diote. Gay eta lesbianen nazioarteko eguna izan zen atzo, ekainak 28. Egun hau aitzaki hartuta, Elgoibarko hiru homosexualekin egon gara. Esperientzia desberdinak jaso ditugu, benetakoak, baina bizipen hauen atzean dauden pertsonak anonimotasuna gordetzeko eskatu digute. XXI. mendean homosexualitateari aurpegiak jartzea ezinezkoa izan da gure herrian eta horrek asko adierazten du. BARREneko langileok gure izenak ere eman behar izan dizkiegu, anonimotasuna zaintzeko. Teoria denok gaindituta daukagula dirudi, baina praktikan, onartzen al ditugu homosexualak?*

**2007. urtean anonimotasunean hitz egin behar dugu. Zergatik?**

**Jaione:** Ez dagoelako onartuta. Bikotea eduki dezakegu, etxean esan dezakegu homosexualak garela... baina inori ez zaio gustatzen besteen ahotan egotea, batez ere, gurasoengatik. Hori da anonimotasuna mantentzeko arrazoi nagusia.

**Ainhoa:** Gai honi buruz besteen ahotan egotea ez zait batere gustatzen. Beste aspektu askotan ere egon naiteke jendearen ahotan, baina egoera hau zailagoa da, beste pertsona bat ere tartean sartzen delako. Anonimotasunean hitz egin behar dugu, homosexualitatea ez dagoelako gizar-tean onartuta. Denok esaten dugu baietz, baina benetan oso gutxi onartzen dute.

**Zaila al da Elgoibarren homosexuala izatea?**

**Jaione:** Erraza ez da. Nahi eta nahi ez, konturatu gabe, kalean kontrolatu egiten gara, saiatzen gara eskutik helduta ez joaten, edo bata besteari ez musukatzen... gurasoengatik egiten dugu, batez ere. Elgoibarren gainera denok ezagutzen gara, zure amama ez bada, bestearen amamarekin gurutzatzen zara kalean...

**Asier:** Nire kasua desberdina da. Gurasoekin ez nuen arazorik izan, etxean lasai hitz egiten genuen, lana zen beraien kezka nagusia. Euskal Herria oso txikia da, itxia, baina ni beti errespetatua sentitu naiz. Hala ere, herri txikietan jendeak arazoak izaten ditu eta hiri handiagoetara joaten dira. Nik jende asko ezagutzen dut egoera honetan.



«Oso gutxi  
onartzen  
dute  
homosexualitatea»

AINHOA

**Ainhoa:** Elgoibar oso herri txikia da eta bi pertsonak ligatzen dutenean, mundu guztia enteratzen da, baina komentarioak oso desberdinak dira bikote homosexuala edo heterosexuala baldin bada. Orain arte nire inguruko jendeak bakarrik zekien hau, baina azken hilabeteotan asko zabaldu da eta beharbada orain hasiko dira arazoak.

**Nola hartu zuten etxean?**

**Jaione:** Gurasoentzako zaila da. Beraien adinean alaba lesbiana dela entzutea, gogorra da. Nire gurasoek hezkuntza oso desberdina izan dute, elizak indar handia izan du eta mugatuta daude. Beti kritikatu izan dutena, gaizki ikusita egon dena, bat-batean etxean daukate. Hori asimilatzea ez da erraza. Gainera, jendeak esaten duenak garrantzia handia dauka oraindik.

**Ainhoa:** Nire kasuan gurasoak gazteagoak dira, eta erlijioak eurengan ez dauka hainbesteko eraginik, baina gai honi buruzko elkarriketak oso zailak dira etxean. Behin bakarrik hitz egin dut honi buruz, eta lehenengo erreakzioa ez zen oso ona izan. Ez naiz ausartu oraindik senideekin hitz egiten. Kanpora begira onartuta daukagu, baina barrura begira ez.

**Lagunekin edo lanean izan al duzue arazorik?**

**Ainhoa:** Nire lagunekin ez da arazorik egon, berehala esan nien eta ondo hartu zuten. Aspektu honetan nire ingurunea nahiko irekia da, ez da batere itxia; ez naiz lehenengo eta akaso, ohituago



daude. Baina hain lagunak ez direnekin, hau da, ezagunak direnekin arazoak izan ditut eta hori txarra da.

**Jaione:** Lagunen artean ez, inork ez du erreparorik eduki nirekin, berdin-berdin tratatu naute. Lana jendearekin kontaktuan egiten dut. Jakingo balute lesbiana naizela, bat baino gehiago atzeraka eriko litzateke!

**Asier:** Arazorik bat ere ez.

### **Homosexualitatearen inguruan benetako aurrerapausorik eman al da?**

**Jaione:** Oraindik pausu asko eman behar dira. Bi neska eskutik helduta ikusten direnean, jendea begira geratzen da eta bi-kote heterosexualei ez zaie begiratzen.

**Ainhoa:** Apenas eman da aurrerapausorik, gai hau ez da normaltasunez tratatzen, bestela jendea ez litzateke harrutiko bi neska musukatzen ikustean. Gai hau desberdin tratatzen da. Niri pena ematen dit jende gazte askok gai hau tratatzeko daukan moduak, duela 50 urte bezala hitz egiten dute. Jende aurrean behar bada ez, baina bakarka sekulako astakeriak entzuten dira. Egia da duela 50 urte baino hobeto gaudela, baina ez da nahikoa.

### **Norberaren aukera sexuala adierazteko gizarte presiorik ba al dago?**

**Ainhoa:** Bai, guri gustatu edo ez, existitzen da, bestela libreki hitz egingo genuke. Orain arteko gai guztiak hitz egiten nituen etxean, eta hau ezin izan dut esan, oraindik. Homosexualitatea gaixotasun bat denaren kontzeptua gaindituta dago, ez da lehen bezala, baina gizarte hau heterosexuala da.

**Jaione:** Besteek esan edo pentsatuko dutenaren beldur gara askotan. Guk ikasi dugu honi garrantzia gutxiago ematen, baina gurasoei min handia ematen die besteen esanak.

### **Noiz onartzen du pertsona batek homosexuala dela?**

**Jaione:** Bakoitzak bere momentua dauka. Prest zaudenean onartzen duzu. Sentitzen nuena kontuan hartuta, nahiko berandu onartu nuela uste dut. Bitxikeri moduan: aldizkari batean hamasei urteko neska batek psikologoari idazten zion esanez neska zituela gustuko. Hamasei urterekin bere kondizio sexuala ezin zuela definitu erantzuten zion psikologoak. Orduan zer, adin horretan ematen diren harreman



**«Homosexualitatea normalizatzeko zabaldu egin behar da»**

ASIER

guztiak gezurretakoak al dira? Edo lesbiana izateko bakarrik zara gazteegia? Nik dauzkaten oroitzapenak nahiko txikitakoak dira, baina etxean eduki dudan heziketatik asko aldentzen nintzen. Denbora behar izan nuen onartzeko.

**Ainhoa:** Ez dakit "onartu" hitza zuzena den. Akaso bi hilabete barru mutil batekin egongo naiz, nork daki! Niri pertsonak gustatzen zaizkit, neska bada ondo eta mutila bada ere bai. Momentua aprobeztatu eta disfrutatu behar da. Neska batekin egon nintzen lehenengo aldia ni neu ere harritu egin nintzen, baina bigarren aldiz berarekin elkartu eta oso gustura nengoela konturatu nintzen.

### **Zer egin daiteke egoera honi buelta emateko?**

**Ainhoa:** Normaltasunez jokatu behar da, poliki-poliki normaltasunerako pausuak eman behar dira. Azken urteotan aldaketak eman dira, lehen lagunen artean esateko ere beldurra egoten zen. Auskalo, hemendik urte batzuetara agian normaltasunez joan ahal izango gara kaletik. Batzutan ezkatatu egiten gara eta hori ez dugu egin behar. Ikastetxeek asko egin dezakete. Ikaragarria da egungo gazteek gai honi ematen dioten morboa. Moduren bat bilatu behar da.

**Jaione:** Gure esku dago egoera hau aldatzea. Normaltasunez jokatzeko hasten bagara, jendeak errazago onartuko du.

### **Homosexualitatearen barruan, balore tradizionalen aldarrikapenak ere egin dira, ezkontza esaterako. Ez al dago kontraesanik hor?**

**Ainhoa:** Eskubide berdinak aldarrikatzen dira ezkontzarekin. Orain dela gutxi onartu denez homosexualak ezkontzeko legea, badirudi modan jarri dela, baina pasatuko da bolada hau.

**Jaione:** Azken batean berdintasuna eskatzen da. Zergatik heterosexulak ezkondu daitezke eta gu ez? Lege hau onartu zenean, neska lesbiana bat atera zen manifestazio batean kamiseta batekin esanez "orain ez naiz ezkontzen ez dudalako nahi". Aukeratzeko eskubidea behintzat eman behar da. Umeak adoptatzeko ere arazoak daude, errazagoa da bakarrik adoptatzea. Oraindik gazteak gara, baina egoera hau ere iritsiko zaigu. Emakumeok fisikoki errazago daukagu gizonen baino.



**Asier:** Ni ezkondata nago. Udaletxera joan ginenean, bertako langilea harrituta gelditu zen, baina ez genuen arazorik izan. Badakit ez dela ohikoa, baina gure egoera ona da.

**Ekainaren 28a bezalako egunek zer esanahi daukate?**

**Ainhoa:** Urte osoan tratatu beharreko gaia da. Kontzientziazko arazo handia dago herrian. Instituzio publikoek lan handia daukate egiteko, adopzioaren kasuan adibidez, aurrerapausoak eman behar dira. Orokorrean gaizki dago Elgoibar gizarte gaien inguruan, informazio gutxi ematen da. Biluzik Sexologia Zerbitzutik orain hasi gara homosexualitateari buruzko zerbait irakurtzen.

**Asier:** Gizarteak gehiago hitz egin behar du gai honi buruz. Zabaldu egin behar da, bestela ez da inoiz normalizatuko. Errespetua ezinbestekoa da elkar bizitzeko.

**Lesbiana izatea gay izatea baino zailagoa al da?**

**Jaione:** Bai. Nire bikotearekin egonda,

behin baino gehiagotan etorri zait mutil bat hiruko bat egiteko proposamenarekin. Mutilen kasua onartuago dago.

«Besteek esan  
edo pentsatuko  
dutenaren beldur  
gara askotan»

JAIONE

**Ainhoa:** Izan daiteke. Sexuari buruz ere, mutilek lasaiago hitz egiten dute eta hau beste aspektu bat da. Guk koadrilan asko hitz egin dugu, baina badakit ez dela normalena.

**Nola hartuko dute BARRENEko irakurleek erreportaje hau?**

**Ainhoa:** Lupaz begiraturiko dute, nortzuk garen jakiteko.

**Jaione:** Morboz hartuko dute, gai honek zeresan handia sortzen du. Zer inporta zaio jendeari nortzuk garen?

**25 urte barru bikote homosexual bat ikusiko al dugu Plazan muxuka?**

**Jaione:** Heterosexuala izanda ere ez nintzateke Plazan bikotearekin muxuka hasiko. Baina tabernetan baietz esango nuke. Eboluzio bat bizi izan dugu, eta honek jarraituko du aldatzen. Ni lehen ez nintzen ausartzen nire bikoteari kalean muxu bat ematen, behin eman nion, eta koadrilako batek banatu egin gintuen, hurrengo egunean damutu egingo ginela esanez.

**Ainhoa:** Gazteak ibiltzen diren tabernetan lasaiago egoten naiz, beraz, 25 urte barru taberna horietan ibiliko naizenez, lasai egongo garela uste dut. Gaur egun ere, herri askotan lasai-lasai egon gaitzke juergan, Elgoibarren oraindik ez. Hala ere, familian onartuta baldin badaukate, jendea kuxkuxeatzen ibiltzea berdin zait.

**Asier:** Bai, nik uste dut lasai ibiliko garela. Poliki-poliki gizarte aldatzen doa.

12 eta 19 urteko gazteen artean alkohol eta porroen kontsumoa gora doa Eusko Jaurlaritzak emandako datuen arabera.

## Kezkatzen al zaitu gazteen droga kontsumoak?

**LUIS MARI LAZKANO**  
Biltegiko langilea  
31 urte



“Beti edan izan da baina adin muga jaitsi da. Porroen kontua ere asko igo da baita beste drogena ere. Kezkatu eta harritu egiten nau psikologikoki eta fisikoki kaltegarria delako”.

**IOSU AIZPURU**  
Ikaslea  
22 urte



“Droga biguna deitu arren zapatuetan gazteek tabernetan kontsumitzen dute. Ni momentuz ez nau kezkatzen baina gurasoak arduratzea normala da”.

**MIREN ALBERDI**  
Umeen begiralea  
50 urte



“Asko kezkatzen nau. Ikusita nago 13 urteko umea erabat pasatuta zapatuetan. Irtenbidea denon artean aurkitu behar diogu: irakasle, guraso, tabemari, udaltzain...”.

**M. ANTONIETA MENCIAS**  
Sukaldaria  
30 urte



“Kezkatzen nau. Hamar urteko semea dut eta gainean egon behar naiz. Ekuadorrekoa naiz eta han ez bezala hemen asko erretzen da, baita helduek ere, eta eurak dira umeen eredu”.



ETE, KOOP. E.



### GOI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA ZIKLOAK

*Enpresatik oso hurbil dagoen zentru batetan*  
*Goi Mailako Heziketa Zikloak ikasi nahi badituzu, zatoz ETEOra.*

**ADMINISTRAZIO ETA FINANTZAK**  
**MERKATARITZA KUDEAKETA ETA MARKETINGA**  
**IDAZKARITZA**

Autobusa daukagu urte guztian zehar: Azpeitia, Azkoitia, Elgoibar, Eibar, Oñati / Zornotza, Durango, Atxondo, Elorrio, Oñati

**Informa zaituz 943718009 telefonoan**





Larraña auzoa, 16 • 20560 OÑATI (Gipuzkoa)  
 Telefonoa: 943 71 80 09 • Fax: 943 71 81 62

informacion@eteo.mondragon.edu • www.eteo.mondragon.edu

## [ PROTAGONISTA ]



Jose **Gurrutxaga**

Espainiako Beteranoentzako Atletismo Txapelketan 100 eta 200 metroko distantzietan urrezko domina eskuratu du 85 urteko atleta elgoibartarrak. Azken bi hauekin 35 domina irabazi ditu Jose Gurrutxagak Espainiako Txapelketetan, ia denak urrezkoak. Murtzian jokaturako txapelketako probetan haizea izan zen protagonista, baina oztopo hori ere gaundituz iritsi zen helmugara. Azken bi urteak antxintxika egin ezinda egon da, bihotzetik operatu zutelako. Baina oraindik onenen pare jarduteko gai dela erakutsi du Elgoibarko txapelkunak. Zorionak Jose!

## [ NOTIZIA ]

### Mupem enpresaren inguruak berritzeko lanak uda ondoren amaitu nahi dituzte

**E**kainaren erdi aldean hasi ziren Construcciones Erga enpresako langileak Morkaiko kalean dagoen Mupem enpresaren inguruak berritzeko lanok egiten. Hiru hilabeteko epea izango dute lanok egiteko. Beraz, uda osterako inguru horrek itxura berria izango duela aurreikus genezake.



#### Aparkalekua eta pasabidea

Inguru berritzeko honako lanok egingo dituzte: gune berde berriak sortuko dituzte; J. Larrañaga eta Arrieta tailerren pareko garaje zaharrak bota eta aparkaleku berriak egingo dituzte (hamar izango dira guztira, horietako bat elbarrientzat); argiztapen berria ere ipiniko dute; eta Gazte-txearen eta Ger eta DMP enpresek lehen

erabilitako eraikinaren artean oinezkoentzako igarobidea egingo dute.

Madalako biribilgunearen inguruak berritzeko lanetarako 300.000 euroko aurrekontua zegoen aurreikusita baina azkenean 118.000 euro inguru erabiliko dituzte.

## [ ZENBAKIA ]

# 145

Kirol Patronatuak antolatutako UDA 2007 kanpainan 145 haur eta gazte arituko dira. Haurren artean arrakasta handiena izan duten ikastaroak aerobika eta tenisa dira, bakoitzean 30 umek eman dute izena. Gazteen artean batuka (30) eta spinning (20) ikastaroak dira harrera onena izan dutenak.

## asteko [ ARGAZKIA ]



Argazkiko zortzi neskek Elgoibarko BH Institutuan ohorezko matrrikulak atera dutenak dira, ikasgai guztietan batez beste bederatzitik gorako emaitza: Mireia Perez; Maite Kintanilla; Maite Goenaga; Jone Oregi; Enara Arquillo; Maitane Unanue; Elisabet Padreda; eta Maitane Diez. Bestalde, Lanbide Heziketa zikloetan ere ohorezko aipamenak banatu dituzte: Unai Merino, Paulo Jorge Gonçalves, Idoia Egaña eta Ana Rosario Gonzalezek jasoko dituzte. Diploma banaketa gaur arratsaldean izango da Herriko Antzokian.

## Euskara praktikatzeko Tertulietan 27 lagunek jardun dute aurtengo ikasturtean



Ikasturte berri bat bete du Elgoibarko Izarrak gestionatu, herriko bi euskaltegiek lagundu eta Udalak babestutako Tertuliak programak. Helburua da euskaraz hitz egiteko zailtasunak dituztenei aukera eskaintzea.

Ikasturte honetan 19 euskaldun berrik eta zortzi euskaldunek hartu dute parte zortzi taldetan banatuta. Talde bakoitzean euskaldun bat egon da euskaldun berriekin tertulian jarduteko. Taldeak hiruzpalau lagunekoak izan dira gehienak eta, normalean, kafe baten inguruan elkartu dira euskaraz jarduteko.

Ikasturtea amaitzeko programan parte hartu duten 13 lagun elkartu ziren afari baten bueltan. Jan-edanak lagun zituztela, urtean zehar bizi izandakoak elkarri kontatzeko aukera izan zuten.

### Datorren ikasturterako deialdia

Atsedenen ondoren, urrian berriz ere izango da tertulietan parte hartzeko aukera. Horretarako, irailean zabalduko dute izena emateko epea. Aukera aprobetxatu nahi duten herritarrek euskaltegietara edo Elgoibarko Izarrara jo dezakete. Izen-ematea telefonoz ere egin daiteke.

## Danobat Taldeko Euskara Batzordeetako topaketak



Danobat Taldean euskararen erabilera bultzatzeko lanean diharduten Euskara Batzordeetako kideek topaketa egin zuten. Danobat, Danobat Taldea, Soraluze, Ideko, Estarta, Lealde, Danobat Sistemas eta Goimekeko kideek hartu zuten parte. Horietaz gain, Andoaingo Latz kooperatibako hainbat kide eta Elgoibarko Udaleko Euskara Zerbitzuko ordezkariak ere izan ziren. Antolatzaileen esanetan, "ekitaldi atsegina izan zen eta Lasarteko Udaleko euskara teknikariaren hitzaldiak argumentuz jantzi gintuen euskararen erabilera aurrera egiteko".

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### Zubibaikoen bilera Udalarekin

Altzolako bizilagunen Zubibai elkarteak alkate berriarekin batzartzeko eskaria aurkeztu du Udalean. Helburua da irtenbidea ematea auzoko arazoari. Aurreko agintaldian "alkateak kasurik ez" diela egin eta horregatik kezu dira auzotarrak. Alkatearekin egin nahi duten bileran aspalditik dituzten kezkek jarriko dituzte mahai gainean: N634 errepideak eragindako arriskuak; zubia; tren eta autobus zerbitzuak; ibaia; aparkalekuak; garbiketara; estolderia, argindarra eta gasa...

### San Fermin Txiki eta entzierroak

Iruñekoak San Fermin jai esanguratsuak izan arren bertako giroa gurrera ekartzeko barixakurako, uztailaren 6rako, San Fermin Txiki eguna antolatu du Atxutxiamaikak. 10:30ean San Bartolome eta Errosario kaleetan barrena entzierroa egingo dute eta ondoren, zezentxoak eta poniak izango dira plazan. Txorizoa jateko aukera ere ez da faltako. Bestalde, uztailaren 7tik 14ra bitartean goizeko zortziretan Kultura Etxeko hitzaldi gelan San Ferminetako entzierroak zuzenean ikusteko modua egongo da.

### Azkarrena lehiaketako sariak

Barixakuan banatu zituzten IMHn Azkarrena lehiaketako sariak. 1.000 lagunetik gora izan dira partaideak eta Jon Martinez IMHko diseinu ikasleak eskuratu zuen lehen saria eta opari modura X box-a jaso zuen. Esperientzia baikorra izan dela ikusita, IMHk gazteengana hurbiltzeko xedea duen kanpaina etorkizunean berriro abian jartzeko asmoa azaldu du.



# GAZTIA NAIZ

Gazte gaia...

## MIKEL OLAIZOLAREN

## EUSKAL HERRIKO BERTSO

MIKEL OLAIZOLA OÑEDERRA. 16 URTE. ELGOIBARTARRA. BERTSOLARIA. UMILA. ARGIA. LEIALA. EZ ZAIO BERTSOLARIA DELA ESATEA IRTETEN BERARI, BAINA GUK ESAN GENEZAKE. BAI, BERTSOLARIA DA MIKEL. GIPUZKOAKO ESKOLARTEKO TXAPELKETAN BIGARREN EGIN DU AURTEN. EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA IZAN ZUEN PASA DEN ASTEAN. BERAREKIN IZAN GINEN EGUNEAN ZEHAR. IKUSI DUGU NOLA JOAN ZEN EGUN HURA, ETA NOLA BIZI IZAN ZUEN MIKELEK BERAK.

Testuak eta argazkiak: Ainhoa Mendibil

**A**ltsasun geneukan zita, ekainaren 23a zen, zapatua eta azkar bazkaldu ondoren abiatu ginen Nafarroa aldera. Euskal Herriko eskolarteko bertsolari txapelketako finala geneukan zain bertan. Goizean txikiak aritu ziren, baina gu nagusien faserako iritsi behar ginen. 15 eta 18 urte bitarteko 12 bertsolari. Gipuzkoa, Bizkaia, Nafarroa Garaia, Nafarroa behera, Lapurdi eta Araba. Frontoi bat. Pankartak, jarraitzaileak, gurasoak, lagunak, irakasle eta ikaskideak. Denak gazteei begira. Eta gure protagonista, Mikel.

Urduritasuna zen nagusi inguruan. Poliki poliki hasi ginen Frontoi kanpoan biltzen guztiak. Jarraitzaileak barrura, eta bertsolariak kanpoan. Zozketa egiteko ordua zen. Erabaki beharra zegoen nork kantatu lehenengo, eta nork segi gero. Mikel hirugarren, ez zen postu txarra.

Mikel lasai zegoen. "Ez daukat ezer galtzeko eta, ez naiz ba orain urdurituko" esaten zigun bera bezain lasai ez geundeno. Urte osoan askorik prestatu gabe zihoan txapelketara. Gozatzer; baina hori bai, txapelketa zela ahaztu gabe. Indartsu zegoen, eta seguru. Inoiz baino segu-

ruago akaso; inoiz baino "presio gutxiagorekin" ere bai agian. Ahal zuena egitera zihoan, eta listo. Baina hortzak erakutsi zizkien gainontzeko parte hartzaileei hasieratik. Ez zen isilik egotera joan. Behin joanda, egin beharrekoa egin behar. Horrela egin zuen hasierako agurra kantatzea tokatu zitzaionean ere. Zuzen altxatu eta abisatu zituen ingurukoak altu esanaz "ez naiz etorri faboritoei, faborerik egitera".

Binaka, ofiziotan aritu behar zuten lehenengo. Gogor egin zuen hemen Mikel. Bera ere gustura sentitu zen. "Bi bertsuak oso antzerkoa esanaz bota dituda-

*Nahiz ez natorren sarien bila  
txapel goseak bai zera  
ez naiz etorri faboritoei  
faborerik egitera  
motibazioz topera  
nator gaur zuen artera  
aprobetxatu nahian Bergaran  
eman zidaten aukera  
pausorik pauso aurrera  
ondo irtengo ote da  
ahal dugun dena ematen behintzat  
gogor saiatuko gera*



# BARREN

# KON

# TXAPELKETAN



la iruditzen zait, baina esateko nuena esanda geratu da, eta txukun" aitortu zigun saio ostean.

Gainontzeko zortziko handiko saioak ere ondo burutu zituzten. Bertso politik irten ziren orokorrean, baina saioa hobetuz joan zen denbora pasa ahala, eta zortziko txikiko saioek beste kolore bat izan zuten. Zuzen-zuzen esan nahi zuena esaten ahalegindu zen, eta igarri egin zitzaion hori. "Saioa borobildu gabe bezala geratu dela uste dut" esaten zuen bukatu orduko. Guk geuk gustura entzun genuen Mikel gai honen inguruan kantuan.

Eta neurri honetako saioak bukatuta, etorri zen aurrera edo atzera egiteko unea. Lehian zebiltzan 12 bertsolarietatik sei azken fasera pasako ziren, eta beste seiak bukatutzat izango zuten finaleko lana. Az-

ken fase horretan erabakiko zen zein izango zen txapeldun berria. Maila ona zegoen, aitortu beharra dago hori, eta oso ondo kantatu zuten guztiak. Baina bazezgoen aukerarik Mikelentzat. Ez zen horrela izan. Mikelek bukatuta zuen bere lana. Lasai zegoen, orduan bai, sekula baino lasaiago, eta egindako lanarekin gustura. "Hobeto kantatu nezakeen, baina beti egin daitezke gauzak hobeto, eta urtean zehar egin dudanerako, nahikoa izan da. Aurtengo espektatibak ondo beteta noa etxera". Bukatu zen sari banaketa, eta garbi laga nahi zian zuen Mikelek bukaerako agurrean, joan zen indar berarekin itzultzen zela etxera, eta hurrengo urtean beriz bueltatzeko asmotan gainera. Zehatz esan baitzuen azken puntuan "Noa itzultzeko guran, hurrengo urteko udan".

## bertsolari tza

TXIKITATIK JASOTAKO ZALETASUNA



Oraindik ere, irabazi dituen sariak irabazita eta gozaten duena eta gozazten diguna ikusita ere, Mikel ez da bertsolaria sentitzen. Ez zaio gustatzen une oro bertsoaren inguruan jardutea, eta ez da lagunaren artean bertsoan egiten duen horietakoa. Are gehiago, amorratu ere egiten dela dio. "Ez dut ulertzen jendeak bertsoa edozein lekutan sartzeko duen behar hori. Badirudi, edo hori iristen zait behintzat niri, edozein ekitaldi, ikuskizun, eta bazkari, edo jai giro edo dena delako borobildu nahi bada, bertsolariren bat edo beste egon beharko dela kantuan".

Etxean jaso zuen bertsozaletasuna txiki txikitatik, gurasoak eta gainontzeko familia ere bertsoarekin lotua egon da beti. Bertsoak entzun izan ditu txikia denetik, eta eurei zor die zaletasun hau. Baina lotura zuzenagoa izateko aukera bertso eskolan izan zuen.

Orain bost bat urte sortu zen Errazu Bertso eskola, eta hortik ateratako bertsolaria da Mikel. Hasieran, bertsoak gustatzen zitzaizkiolako eta lagun artean egotearren eman zuen izena bertan, eta poliki-poliki, lotura hori handituz joan da. Bertso eskolaren sorreratik gaurdaino dihardu Mikelek Errazun, eta ondo eskertua izan da behin baino gehiagotan bere jarrera, irakasle izan dituenen partetik ere. Egun, bera irakasle izatera pasa da. Bera eta beste lau ikasle ohi arduratzen dira txikitxoek ere bertsoarekin goza dezaten. Beraz, aurrerantzean ere badator bertsoa zabalduko duenik gure herrira.

## San Bartolome jaietako kartel lehiaketa martxan da

Elgoibarko Udaleko Kultura Bartzordeak San Bartolome jaietako programaren azala aukeratzeko lehiaketa antolatu du. 18 urtetik gorako edozeinek hartu dezake parte. Teknika libre izango da, baina ezinbestekoa da ondorengo testua jartzea: "Elgoibar, San Bartolome jaiak 2007". Irabazleak 500 euro jasoko ditu eta 250 euroko sari berezia izango da lehenengo elgoibartarrarentzat. Irabazleak herrikoa bada, sari berezi hau bigarrenak jasoko du. Lanak Kultura Sailean entregatu beharko dira uztailaren 6rako.

## Gemma Monrelaen margo erakusketa Zarautzen

Gemma Monreal margolari elgoibartarrak bere lanen erakusketa berri bat inauguratuko du bihar, ekainak 30. Zarauzko Kayua arte galerian jarriko ditu ikusgai bere koadroak. 27 koadroz osatutako erakusketa hau uztailaren 14ra arte egongo da ikusgai. Bisita orduak: Goizez 11:30-13:00 eta arratsaldez 18:00-20:30. Jai egunetan arratsaldez irekita egongo da eta astelehen goizetan itxita.



## "Spiderman III" pelikularekin hasiko da gaur gauean aire libreko zinemaldia

Uda iristearekin batera, Herriko Antzokiak atea irekitu, eta aire libreko zinemaldia hasiko da. "Spiderman III" pelikularekin zabalduko dute ziklo berri hau, eta guztira 14 pelikula eskainiko dituzte, abuztuaren 4ra bitartean eta horietako bat euskaraz izango da. Pelikula guztiak 22:30ean hasiko dira.



### KARTELDEGIA

**Ekainak 29, ostirala:** Spiderman III  
**Ekainak 30, zapatua:** Cerdos salvajes  
**Uztailak 6, ostirala:** The Host  
**Uztailak 7, zapatua:** Las vacaciones de Mr. Bean  
**Uztailak 13, ostirala:** El novio de mi madre  
**Uztailak 14, zapatua:** Azur eta Asmar (euskaraz)  
**Uztailak 23, astelehena:** Sunshine  
**Uztailak 24, asteartea:** La caja kovak  
**Uztailak 27, ostirala:** Nomadak Tx  
**Uztailak 28, zapatua:** Pequeña Miss Sunshine  
**Uztailak 29, igandea:** Apocalypso  
**Uztailak 30, astelehena:** La telaraña de Carlota  
**Abuztuak 3, ostirala:** 300  
**Abuztuak 4, zapatua:** Borat

## Inazio Bereziartua Musika Eskolako bi ikaslek saria jaso zuten Irungo akordeoi lehiaketan

Inazio Bereziartua Musika Eskolako bi ikaslek "IX. Anzaran Irungo Hiria" akordeoi lehiaketan hartu zuten parte eta biak ere, oso ondo moldatu ziren. 12 urtera artekoen mailan Ana Babarrok 3. saria eskuratu zuen eta 16tik 20 urtera bitarteko mailan, bigarren postuan sailkatu zen Amaia Vegas. Zorionak!



**MAHASTI** 

Jose Angel Zabala  
URDATEGIA eta ARDANDEGIA 

Merkatu Plaza, 30-33-34 • Tel.: 615 76 03 72

 **PINTURAK**

PEDRO PEREZ BERISTAIN

Xixilion, 2 · 3.sotoa ☎ 943 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA



## JAIK

### Altzolako San Juan jaien erreleboa hartuko dute San Pedroko jaiak asteburu honetan

Jai giroa izan zen nagusi pasa den asteburuan Altzolan. San Juan jaiak giro onean ospatu dituzte aurtengoan ere auzotarrek, eta orain erreleboa San Pedro auzoko bizilagunei pasatu diete. Atzo hasi ziren jaiak Idotorbe auzoan, eta asteburuan izango dute jarraipena.

Gaur, ekainak 29, San Pedro eguna izanik, meza nagusia eta auzotarren arteko bazkaria izan dira. Gauean bertsolarien txanda izango da. Sebastian Lizaso eta Amets Arzallusekin bertso afaria izango da. Jaiak domekan, uztailaren 1ean amaituko dira:

#### SAN PEDROKO JAIEN EGITARUA

##### Ekainak 29, barixakua

21:00 Bertso afaria Sebastian Lizaso eta Amets Arzallusekin.

##### Ekainak 30, zapatua

16:00 Manu Alvarezen omenezko IV. Motokros proba.

23:00 Kupela taldearen emanaldia.

00:00 Bolo txapelketa

##### Uztailak 1, domeka

10:30 Meza

12:00 Goenatxo aita-sembleak harri-jasotzen.

14:00 Auzotarren bazkaria

17:30 Idi demak



### Suaren inguruko dantzaldiaren ondoren, Gipuzkoa eta Iparraldeko dantzak izango ditugu asteburuan

Haritz Euskal Dantza Taldeak antolatuta, Gipuzkoa eta Iparraldeko dantzen ikuskizuna izango da bihar, ekainak 30, arratsaldeko 19:00etan Plaza Handian. Elgoibar eta Kanboko dantzariak eskainitako dantza ikuskizuna izango da. Euria egiten badu, emanaldia Herriko Antzokian izango da.

Joan zen zapatuan bestalde, ikusizun berezia eskaini zuten Haritz Euskal

Dantza taldeko dantzariak. San Juan bezpera eguna izanik, suaren inguruan egin zuten dantza. Plaza Handian egin zuten sua, eta haren bueltan aritu ziren neska-mutilak dantzan eta abesten. Jende asko gerturatu zen Plaza Handira ikusizun berezi honetaz gozatzeko. Jotarik izan ez zutenek, emanaldiko bideoa [www.elgoibarren.net](http://www.elgoibarren.net) atarian ikusi dezakete.





**karkizano**  
San Frantzisko, 14 - Tel. 943 74 05 49



San Bartolome, 18  
Tel. 943 74 08 49



**CORDON VILARCHAO**

San Roke, 7 behean  
Pol. Olaso - Olaso kalea, 18 - 25 eta 26 modurak  
Tel. 943 740 570

**DEKORAZIOA**

Kango eta buruko estaliturak  
Zaluzen kolokazioak  
Lakadeta: egur, aluminio, P.V.C.  
Pintura orokorra



## JAVI GURRUTXAGA EIBARKO FUTBOL JOKALARIA

# «Zelaian jokoan jartzen dut arreta eta ez dut sufritzen baina domekan sufritu nuen»



Argazkiak:  
Felix Morquecho

*Eibar Futbol Taldea 2.A mailara igo zen urtebete beheko mailan eman ondoren. Talde armaginak 2-0 irabazi zion domekan Rayo Vallecanori eta joaneko neurketako emaitzari buelta eman zion. Ospakizunen ondoren Javi Gurrutxaga Eibarko jokalaria elgoibartarrekin hitz egin dugu.*

▶ **Zer sentitu zenuen lpuan jendea zelaian saltoka eta oihuka ikusita?**

Partiduaren aurretik garbi genuen urte osoko lana azken partiduan laburbiltzen zela. Beraz, amaitu zenean lehenengo poza sentitu nuen; gero, sufritzen egon ostean, sekulako lasaitasuna.

▶ **Denboraldia nolako izan da?**

Aurreko denboraldian Eibar jaitsi zenez zalantzak zeuden taldea nola egongo zen. Goian egotera, *Play Off*-ak jokatzeria behartuta gaude, emaitza txarrak egonez gero egurra ematen digute, beraz, beldurra zegoen. Baina ez ginen gaizki hasi eta maila mantendu dugu.

▶ **Eta azken partidua?**

Bizia. Bigarren zatia gogorra izan zen. Inertziaz-edo atzera egin genuen, babeserako joera hartuz eta horrek sufriarazi zigun. Zelaian ez dugu sufritzen, jokoan jartzen dugu arreta eta sufritzen dutenak ikusleak dira. Baina nik igandean zelaian bertan ere sufritu nuen.

▶ **Aurrez horrelakorik bizi izan duzu?**

Lorcako jokalaria nintzela, orain dela bi urte, Real Unionen aurkako partiduan igotzea lortu genuen. Elgoibarrekin ere igoera bizitakoa naiz. Baina ligaxka eran jokatu genuen eta errazagoa izan zen.

▶ **Eibarren jarraituko al duzu?**

Beste urtebeterako kontratua dut, baina aldaketak beti dira posible. Entrenatzaileak eta taldea osatzerakoan beharren arabera hartuko ditu erabakiak.

▶ **Reala izango duzue aurkari. Zein izango da Gipuzkoako talde nagusia?**

Gipuzkoako taldea beti izan da Real eta hala izango da. Biek jardungo dute maila berean, baina Realak izena du, aurrekontu handiagoa, hiriburuko taldea da eta egitura lehen mailakoa. Eibar talde umila da eta bakoitzak bere planteamenduak dauzka. Helburuak ere ezberdinak dira. Realean esan didate urte txarra izan arren euren artean ongi konpondu direla, baina Eibarko jokalarion arteko giro ona esportatzeko modukoa da.

▶ **Eibarren helburua mantentzea da. Horretarako txip aldaketa behar da?**

Bai, maila bera ezberdina da eta taldeak ere batzuk orain lehen mailatik jaitzitaokak daude. Egoera serioagoa izango da, nahiz eta orain arte ere ez garen txantxetan ibili. Une zailak biziko ditugu. Hala ere, Eibar egon da bigarren mailan, ezagutzen ditu aurkariak eta maila bera.

▶ **Zaleei zer esango zenieke?**

Eibartarrek taldearekiko duten zaleatasuna berezia da eta hori igartzen dugu. Taldearekin batera sufritzen dutela badakigu eta esango nieke jarraitzeko animuak ematen, agian bultzada pixka bat gehiago beharko dugulako. Elgoibarren ere sumatu dut zaleatasuna. Nahiz eta Eibar eta Elgoibar artean pikea egon gertutasunagatik bada ere elgoibartarrek nahi zuten Eibarek irabaztea eta kalean ere animuak eman dizkirate.

«Eibarko jokalarion arteko giro ona esportatzeko modukoa da»

## [ GOMENDIOA ]

### Kiloak kentzeko unea iritsi da

**K**iloak gainetik kentzeko ere, beste edozein sasoi bezain egokia da uda, iristeko pisua lorgarria eta metodoa osasuntsua direnean.

Elkarren kontrako bi kontzeptu horiek 'jatea eta argaltzea' gutxitan uztartu dira helburu bera lortzeko. Helburua pisua galdu nahi duenaren osasuna arriskuan ez jartzea da. Argaltzea bada kontua, jatea posible ez ezik, komenigarria ere bada. Horri esker, amestutako zenbakian baskula gelditzeko desioa obsesio ez bihurtzea lortuko dugu. Kaloria gutxiago hartzea ez da nahikoa. Argaltzen ikasi beharra dago, gizentzera garamatzaten edo argaltzea oztopatzen duten jokabideak suntsitu be-

har ditugu. Argaldu ahal izateko, elikatze-ko eta bizitzeko estiloak aldatu behar dira; bestela esateko, "bikini operazioa" edo "bi hilabetez dieta egitea" baino jokabide iraunkorragoari heldu behar zaio.

• Zer jan: udako fruta eta barazki tipikoek ezaugarri berberak dituzte: ur eta zuntz asko daukatenez, berehala betetzen gaituzte; horien azukre urriek gozotasuna eta kaloria gutxi ematen dizkigute. Horiez gainera, kaloria gutxiko freskagarri eta izozkiak ere har ditzakegu. Haragia, arraina eta arrautzak afaritarako utz daitezke, eguerdian landarezkoak nagusi diren proteina gutxiko plater konbinatuak kontsumituz. Esate baterako,

klase askotako barazkiez eta arrautza egoki batez osaturiko pastadun entsalada; sarrera gisa gazpatxoa eta ondoren paella bat; tomate bat entsaladan, gazta fresko eta oreganoz lagundua eta horren ostean lekale eta arrozdun platerkada. Postrerako, infusioa edo kafe azukre gabea. Gero, janari artean kontsumitze-ko, fruta ale bat edo jogurt gaingabetua ere hartu ahal izango dugu.

• Nola jan: poliki, ongi-ongi murtzikatuz. Horrela gutxiago jango dugu, ase-tasun-sentsazioa dela medio.

• Noiz jan: janari batetik bestera lau ordu baino gehiago igaro badira, ongi dago baraua haustea.



## [ OSASUN GIDA ]



### MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda

("Dieta erraza" Mehetzeko tratamendua... Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak)

San Bartolome, 25 • Tel: 943 74 40 31

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Naturhouse

Dietetika eta nutrizioa

San Frantzisko, 26 943 74 10 78

Ordutegia: 09:00-13:00 / 16:00-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Urasandi, 9 • Tel: 943 74 85 93 (Idoia) / 685 722 131

Astearte eta ostegunetan:

10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/18-19:30/20-21:30

**Mendaro**

Astelehen eta asteazkenetan: 10-11:30/15-16:30

Astearte eta ostegunetan: 20:00-21:30

### OPTIKAK

Ikus Optiko-optometrista

San Bartolome, 10 • Tel: 943 74 37 34

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21 • Tel: 943 74 03 59

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

### HORTZ KLINIKAK

Irale

Erosario Kalea, 7 behe (Elgoibar) Tel: 943 74 36 79

Zeharkalea, 8 behe (Ermua) Tel: 943 17 71 34

e-posta: irale@irale.com - weba: www.irale.com

### FISIOTERAPIA

Ainhoa Fisioterapia

Eragozpen fisikoa egongo balitz etxeko zerbitzua eskeintzen da.

Tel. 943 53 19 53 / 669 565 745 (Goiz eta arratsalde)

Jausoro, 6 behe

Amalurra Fisioterapia

Ordubeteko tratamendu manualak. Goiz eta arratsalde.

San Frantzisko, 58 behe (Maalan) • Tel.: 943 53 14 63

Olatz Fisioterapia

(Minarentzako tratamendua, erredukazio posturala,

prebentzioa, erlajazioa, masaia, reiki)

San Roke, 1 - Tel. 696 821 149

Egunero: 9:00-13:30 / 15:00-20:00

### ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12 • Tel: 943 74 35 62

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

### PODOLOGOAK

Oinberri

Erosario kalea, 25 • Tel: 943 74 17 95

Astelehenetik ostiralera: 9:00-13:30 / 15:00-19:30

Gidan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra

## QUEBRANTAHUESOS

### 20 herritarrek hartu dute parte Quebrantahuesos proban

Zikloturistezako tximindulari proba entzutsuena da Sabiñanigon (Aragoi) korritzen den Quebrantahuesos. Joan zen zapatuan izan zen eta guztira 6.769 tximindularik hartu zuten parte, 205 kilometroko ibilbide gogorrean. Parte hartzaile horie-

tatik 20 elgoibartarrak izan ziren. Herritarren artean Asier Egañak lotu zituen denbora (6:08:32) eta posturik (77) onenak. Probako irabazlea Mikel Azparren donostiarra izan zen, eta gainera errekor berri bat ezarri zuen 5:21:05eko denborari esker.



#### SAILKAPENA

Izena	Postua	Denbora
Asier Egaña	77	6:08:32
Jorge Gonzalez	145	6:15:27
Ruben Lopez	176	6:17:33
Miguel Correa	444	6:31:52
Javier San Andres	596	6:38:30
J.M. Agirretxe	800	6:44:51
Gorka De La Horra	922	6:49:41
Alberto Mujika	1.171	6:56:48
Gorka Iriondo	1.281	7:00:24
Iker Amutxastegi	1.408	7:04:51
Juan Karlos Urbizu	2.049	7:23:32
Javier Torquemada	2.155	7:26:51
Ricardo Huidobro	4.101	8:23:16
Eduardo Arrona	4.461	8:36:12
Eneko Ramos	4.790	8:49:35
Josu Iriondo	5.569	9:27:12
Carlos Garcia	5.585	9:28:32
Jesus M Lertxundi	5.838	9:44:20
Jose Manuel Esnal	5.839	9:44:21

#### Morkaikoren iteera

Amaiur, Iparla eta Bidarra inguruetara antolatu du Morkaiko Mendizale Elkarteak hurrengo iteera. 23 kilometroko ibilbidea izango da, 7 ordukoa gutxi gora behera. Amaiur herritik abiatuta, eguerdi parterako Iparla gainean egongo dira. Atsedena hartu ondoren beherantz abiatuko dira Bidarraira arte. Interesatuek Morkaikoren egoitzan eman dezakete izena astelehen eta ostegunetan 19:00etatik aurrera.

#### 40 ume inguruk hartu zuten parte Basarte Tennis Txapelketan

Bigarren urtez jarraian antolatu du Basarte Elkarteak umeentzako Tennis Txapelketa. Joan zen zapatuan, ekainak 23, jokatu ziren partidak IMHko tenis pistan goiz eta arratsalde. Elgoibarko ikastetxetako neska-mutilak nor baino nor aritu ziren lehian eta batzuk maila bikaina erakutsi zuten. Txapelketa honetan alebin eta kadete mailako 40 ume inguruk hartu zuten parte.



#### Skate, roller, bike-trial eta brake dance ikuskizun bikaina izan zen Gazte Jaian



Euskal Jaiaren mendeurrena gogorarazteko ekinzen baitan, Gazte Jaia izan zen joan zen zapatuan. Mekanika atzeko futbol kantuan skate, roller, bike-trial eta break dance erakustaldia izan zen. Sei mutil gazte aritu ziren patinetan, patineta eta bizikletan kantuan bertan jarritako oztopak gainditu eta salto ikusgarriak egiten. Erakustaldiaren ondoren, ikusleek parte hartzeko aukera izan zuten. Mutil koadrila bat animatu zen patinak jantzi eta euren abileziak erakustera. Batek baino gehiagok ipurdiko bat ere hartu zuen, baina oso ondo moldatzen direla erakutsi zuten.

## ESKUBALOIA

### Tecnifuelle eskubaloi taldeak uko egin dio lehenengo mailan jokatzeari

**T**ecnifuelle Elgoibar senior gizonen eskubaloi taldeak Nazional mailako Lehen Mailan jokatzeari uko egin dio. Denboraldi aparta egin ondoren kantxetan lortutako igoerari zergatik uko egin dioten azaltzen duen idatzia bidali digu Sanlo EKT-ren Zuzendaritza Batzordeak. Bertan adierazten denez, aurtengo denboraldia aparta izan da Sanlo EKTko 9 taldeentzat, eta dudarik gabe, unerik garrantzitsuena Tecnifulleri lehenengo mailarako txartela eman zion garaipena izan zela diote. Hala ere, taldeak uko egin behar izan dio lehenengo mailan jokatzeari, beraien esanetan "proiektuaren bideragarritasuna aztertu ondoren ez delako nahikoa berme lortu egitasmoa garatzeko, Sanloko gainerako ekipoen jarduna eta ekintzak hipotekatu gabe". Esan digutenez, maila berria aritzeko beharrezkoak ziren baldintzak, bai kirol arloan, bai eko-



nomikoki, bai antolaketa aldetik, ez dira izan hasiera baten aurreikusitakoak. Zuzendaritzatik jakinarazi dutenez, erabaki hau hartzea gogorra eta mingarria izan da, bai zuzendaritzakoentzat eta baita jokalariei gehienentzat ere. Sanlo EKTren helburua Tecnifuelle taldea bigarren mailan mantentzea da.

### Arakistain, Konde, Plazaola eta Arribillaga izan dira Lagunak Pilota Txapelketako irabazleak



Joan zen zapatuan jokatu ziren Lagunak Pilota Txapelketako Finalak Plaza Handian. Lau partida izan ziren, eta jokalariek ikusle mordo baten aurrean aritu ziren nor baino nor. Benjamin mailan Arakistain izan zen irabazlea, Idigorasi 18-16 irabazi ondoren. Alebinetan 18

eta 13 irabazi zion Kondek Larrañagari, kadeteen B mailan Plazaola izan zen txapeladuna, Gabilondo 10 tantutan utziz eta azkenik, kadeteen A mailan Arribillagak jantzi zuen txapela, Salegiri 18-5 irabazita. Txapelketa honetan 40 ume inguruk hartu dute parte.

### Nahaste Borraste 19:00etan

Gaur arratsaldean jokatu da Nahaste Borraste lasterketa herrikoia XXIII. edizioa. Proba arratsaldeko 19:00etan hasiko da Plaza Handian. Parte hartu nahi dutenek, ordubetan lehenengo eman dezakete izena Plazan bertan, edota Kimetz Elkartearen.

### Motokros proba San Pedron


San Pedro auzoko jaien barnean, Manu Alvarezen omenezko motokros proba izango da bihar, San Pedroko zelaietan. Euskadiko motor gidari onenak bilduko dira bertan. Ikuskizuna arratsaldeko 16:00etan hasiko da.

### Kiroldegiko taberna

Olaizaga kiroldegiko tabernako arduradunak hilabete honetan jubilatuko dira eta oraindik ez da inor aurkeztu zerbitzu horren ardura hartzeko. Informazioa nahi dutenek Kirol Patronatuko Zuzendaritzara jo dezakete: 943744415.

### Apurketak Mintxetan

Udal Kirol Patronatutik jakinarazi digutenez, hainbat apurketa egin dituzte Mintxetako aldageletan, joan zen ekainaren 9an Aire Libreko Udal Igerilekuak ireki zituztenetik. Gizonezkoen aldagelako sabaian 12 plaka eta ate ondoko manparak puskatu dituzte, gizonezkoen dutxetan airearen hodia apurtu eta bere lekutik atera dute eta gainera, behin eta berriz izzoratu dituzte komunak nahita paperak botatzearen ondorioz. Patronatutik adierazi dutenez, "horrelako ekintzak egiten dituztenek, jakin dezatela Kirol Patronatuaren zigorrak jasoko dituztela".



## [ ETXEBIZITZAK ]

### SALMENTA

▶ Etxea salgai erdialdean. 3 logela, egongela, bainugela, sukaldea, jangela. 120m<sup>2</sup>. Gas naturala, 60m<sup>2</sup>ko ganbara. ☎ **943741769**

▶ Etxea salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, despentsa. Eguzkitsua. ☎ **616213332**

▶ Etxea salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna. Igogailua, ganbara. Berritua. Garajea aukeran. Prezio interesgarria. ☎ **686208143**

▶ Atiko berritua salgai erdialdean. Igogailua, berogailua, komuna, sukalde modemoa, jangela-egongela handia, 2 logela. bizitzera sartzeko. ☎ **656780459**

▶ Etxea salgai Soraluzen. 2 logela, sukaldea eta bainua. 80.000 euro. ☎ **943772118**

▶ Pisu oso polita salgai Altzolan. ☎ **650243359**

### ALOKAIRUA

▶ Pisu alokatzan da Elgoibarren. 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. ☎ **630878054**

▶ Gasteizen pisua hartuko genuke lau ikaslek. ☎ **685764281**

▶ Logela alokatzen dut. ☎ **943741881/635206436**

▶ 2 edo 3 logelatako etxea hartuko nuke. ☎ **649010179**

▶ Logela hartuko nuke alokairuan. ☎ **679873132**

▶ 25 urteko neska batek pisua hartuko luke alokairuan beste pertsona euskaldun batekin konpartitzeko. ☎ **658700164**

## [ GARAJE eta LOKALAK ]

▶ Garaje itxia alokatzen da Santa Klaran. Plazatik gertu. ☎ **669022573**

## [ AUTOAK ]

▶ Peugeot 1007 ia berria salgai. 75 zaldi, abiadura aldagailu sekuentziala, gasolina, urtebeteko garrantia. ☎ **650693070**

▶ Renault 21 GTS autoa salgai. 90 zaldi. Egoera onean, margotu berria. Gris metalizatua. ☎ **6996008536**

## [ BESTELAKOAK ]

▶ Kanping handia salgai. ☎ **943741451**

▶ Errepiderako 2 bizikleta salgai. Zeus eta Allan aluminiozko koadroak 52 neurrikoak. ☎ **943743959 (Javier)**

▶ Untxartak salgai. 2 hilabetekoak. ☎ **658740788**

▶ Logela salgai, egoera onean. Armairu handia, 1,35eko ohea, komoda, 2 mesanotxe. ☎ **669916148/943531648**

▶ 4 llanta, AMG II, Mercedes replika 18 pulgada, neumatikoak Pzero onean. 1.200 euro. ☎ **628526697**

## OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro. Eta bestelakoak 5 euro. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

## LANA

### ESKAERA

• Emakumea umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketarako egiteko prest. ☎ **667397100**

• Neska lanerako prest. Oso arduratsua. ☎ **659381601**

• Neska gaztea umeak zaintzeko prest. ☎ **662250073**

• DBH2ra arteko klase partikularak emango ditut uztailean. ☎ **695868465**

• Mutila igeltsero, kamarero edo beste edozein lan egiteko prest. ☎ **638905932**

• Emakume gaztea umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketarako... egiteko prest. ☎ **626394831**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketarako egiteko prest. ☎ **638527915/943740367**

• LH, DBH, matematika, fisika, marrazketa... klase partikularak udan. ☎ **653717972**

• Emakumea garbiketarako lanak egiteko prest. ☎ **943742201 (13:00-17:00 edo 20:30etik aurrera)**.

• LHtik DBH2ra arteko klase partikularak ematen dira uztailean, goizez. ☎ **943742855**

• 2. mailako ofiziala lanerako prest. Eraikuntzan, garbiketarako, kamarero... ☎ **661225149**

• Neska gaztea umeak edo nagusiak zaindu, kamarero edo sukalde laguntzaile lanerarako prest. ☎ **626394831**

• Emakume euskalduna alzheimerri duten gaixoak zaintzeko prest. ☎ **943742330/660511781**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketarako egiteko prest. ☎ **639520378**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **671476869**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketarako egiteko prest. Papelekin. ☎ **649010179**

• Gizonezkoa eraikuntzan edo pinturan lan egiteko prest. ☎ **677617031**

• Emakumea nagusiak zaintzeko prest. ☎ **943741977**

• 19 urteko neska umeak zaintzeko prest. ☎ **943741977**

• Mutila umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **676500959**

### ESKAINZA

• Mendaroko Udalean ondorengo oposaketak daude: zeregin anitzetako langile bat, zeregin anitzetako ofizial bat eta denbora partzialerako aparejadorea. ☎ **943033281**

• Kamareroa eta sukalderia behar dira. ☎ **943743196**

• Txuri-Beltz tabernan asteburuetan lan egiteko pertsona euskalduna behar da. ☎ **943741513/943740228**

• Zarautzen ile apaintzailea behar da. Kontratu finkoa eskaintzen da. ☎ **943890281/678659118**

• Arotz laguntzailea behar da. ☎ **653707837**

• Kamareroak, sukalde laguntzaileak eta garbitzaileak behar dira. Kontratu eskaintzen da. ☎ **688623668**

• Lorazainak behar dira Elgoibarren. ☎ **943761756**

• Jantokirako kamareroa behar da. Igandetan jai. ☎ **943740580**

• Arropa denda batek neska euskalduna behar du. Esperientzia, informatika menperatzea eta gida baimena baloratuko dira. ☎ **943741129**

• Asteburu eta jai-egunetan gasolindegian lan egiteko pertsona behar da. ☎ **943740241**

• Fisioterapeuta behar da. 8 ordu, lan lasaia, irabazi onak. Kurrikulum-a bidali: Fisiolantaldea, Aranatar Sabin 3, behea. 48.700 Oндarоо. ☎ **943030150**

• Mendaroko kafetegirako sukalderia behar da. ☎ **943741230**

• Gabi jatetxerako kamareroa behar da. ☎ **943741230**

• Neska edo mutil euskalduna behar da tabernarako. Astegunetan eta asteburuan txandaka. ☎ **943742897**

• Emakume euskalduna behar da umeak zaintzeko. ☎ **685750083 (19:00etatik aurrera)**

• Dendarako langilea behar da. 30-45 urtekoa. Esperientzia ehenki dendetan. ☎ **943744457**

• Bitxiak, barruko erropak eta edergintzako produktuak saltzeko pertsonak behar dira. Ez da esperientziarik behar. Irabazi onak. ☎ **607824892**

• Jatetxerako kamareroa behar da. ☎ **943121262**

### ABISUAK


• Igandetik astelehenera bitartean CD mardoeta eta CDak grdetzeko zorroa galdu nituen Guass inguruan. Saritu egingo da. ☎ **616610957**

• Giltz bat aurkitu dut Artekaleko eskailera mekanikoen inguruan. Amona mandangorriak ditu. Udaltzaingoa laga dut. ☎ **639313329**

• Urte eta erdiko setter ingelesez oparitzen dut. ☎ **639313329**

• Urrezko eraztuna topatu dut. Judith jartzen du. Umearena dirudi. ☎ **639971977**

## [ZORIONAK]



▶ Zorionak **Oihana** bihar 3 urte egingo dituzulako. Familiakoen partez.



▶ Zorionak **Imanol** uztailearen 4an 12 urte egingo dituzulako. Familiakoen partez.



▶ Zorionak **Olaia** uztailearen 2an 7 urte egingo dituzulako. Julene eta familiako guztien partez.



▶ Zorionak **Maitanel** Ondo pasa eguna! Etxekoan, bereziki, Ion eta Janireren partez.



▶ Zorionak **Gorane** hilaren 26an urte bat egin zenuelako. Familiako guztien partez.



▶ Zorionak **Eneko** ekainaren 24an 8 urte egin zenituelako. Familiakoen eta Ander eta Mirenen partez.



▶ Zorionak **Aitana** gaur 6 urte egin dituzulako. Familiakoen, bereziki, Helene eta Enkoren partez.



▶ Zorionak **Sara** hilaren 23an 9 urte egin zenituelako. Guraso eta ahizpa Mariaren partez.



▶ Zorionak **Gorka** gaur 13 urte egin dituzulako. Egundona pasa. Familiakoen partez.



▶ Zorionak **Amanda** zure 4. urtebetetzean. Guraso eta lehengusina Goraneren partez.



▶ Zorionak **Julen** hilaren 26an 4 urte egin zenituelako. Familiakoen eta anai Oierren partez.



▶ Zorionak **Malen!** Zure 1. urtebetetzean ondo pasa zenuelakoan, zorionak lkastolako laguneren partez.




▶ Zorionak **Natalia!** Familiakoen, bereziki, alaba Elena eta Miriam-en partez.



▶ Zorionak **Nora** hilaren 28an 2 urte egin zenituelako. Familiakoen eta lkastolako laguneren partez.



▶ Zorionak **Ana** uztailearen 3an 13 urte egingo dituzulako. Familiakoen partez, ondo pasa!



▶ Zorionak **Gaizka**, gure piratari, hilaren 27an 5 urte egin zituelako. Muxu handi bat etxekoan partez.



▶ **Maite eta Josu**, egundona pasa eta izan zoriontsu. Familiakoen eta laguneren partetik. Muxu handi bana Mendaro eta Elgoibartik.



▶ Zorionak **Eduardo, Igor eta Paula!** Zenbat ospakizun egundon gutxitan! Familiako guztien partetik.



▶ Zorionak nire mutil politari bere 9. urtebetetzean.



▶ Zorionak **Oscar eta Belen** zuen ezkontza egundon. Familiakoen partetik. Aimarren partez muxu handi bat.

### Mendaroko Udalean ondorengo postuen oposaketak daude:

- Zeregin anitzetako langile bat.
- Zeregin anitzetako ofizial bat.
- Denbora partzialerako aparejadore plaza bat.

Eskaerak udalean eskatu edota web orritik inprimatu daitezke.



**Epea uztailearen 10-a**

Informazio gehiago: 943 03 32 82

# Zerbitzuak



## [ OKINDEGIA ]



1 igandea DOÑA MERCEDES



## [ FARMAZIAK ]

**GUARDIA** 24 ORDUZ

- 29 Ibañez
- 30 Bidasolo
- 1 Bidasolo
- 2 Zabaleta
- 3 Etxeberria (Santa Ana)
- 4 Ibañez
- 5 Yudego
- 6 Etxeberria (Santa Ana)

\* Beti dago guardiako farmazia Eibar/Emua zonaldean.

**KANPOKO FARMAZIAK**

**IBAÑEZ**  
Rekalde, 1 Soraluze.  
Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ**  
Herriko enparantza 4, Garagarza.  
Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA**  
Kalebarren, 9 Soraluze.  
Tel: 943 75 13 84

**Malape taberna**  
Orain astegunetan

San Frantzisko, 60  
tel. 943 74 19 43

**Bukatu S. Coop.**  
Olaso industrialdea. Olasope, 66-A  
Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

**MEKANIZATUEN TAILERRA**

**Lanbroa**

**Gosariak  
Pintxoak  
Bokatak  
Plater konbinatuak**

Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 7etatik aurrera  
Larunbata eta jaiegunak goizeko 8etatik aurrera

Pedro Muguruza, 5 - Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

**LANBROA**

**Pintxoetan aukera zabala**

P. Muguruza, 7 Tel: 943 74 16 76

**SORALUCE**  
GRUPO DANOBAT

**SORALUCE KOOP. E.ak  
MUNTATZAILE MEKANIKOAK  
BEHAR DITU**

Mekanika arloko formazioa  
(LH II edo Ziklo Formatzaile Teknikoak)  
Esperientzia izatea kontuan izango da.  
Lanean berehala hasteko aukera.

Bidali C.V GG.BB.etako departamentura.  
Helbidea: Osintxu Auzoa z/g. 20570 - BERGARA  
E-mail: soraluce@soraluce.com



## [ 29 BARIXAKUA ]

**19:00 ELGOIBAR BH**  
**INSTITUTUKO DIPLOMA**  
**BANAKETA**  
 Herriko Antzokian

**21:00 BERTSO AFARIA**  
 San Pedron, Sebastian Lizaso eta  
 Amets Arzallus bertsolariekin.

**22:15 ANTZERKIA**  
 Antzezlan: "Meando fuera del  
 tiesto"  
 Taldea: Kunka antzerki taldea  
 Sarrerak: egunean bertan salduko  
 dira leihatilan

## [ 30 ZAPATUA ]

**16:00 MANU ALVAREZEN**  
**OMENEZKO MOTOKROS PROBA**  
 San Pedroko jaien egitarauen  
 barruan.  
 San Pedron.

**19:00 ELGOIBAR-KANBO**  
**DANTZA SAIOA**  
 Plaza Handian (euria bada,  
 Herriko Antzokian

## [ 2 ASTELEHENA ]

**09:00 INTERNETEKO DOAKO**  
**IKASTAROAK**  
 IT KZgunea: Interneteko doako  
 ikastaroak  
 Uztailaren 2tik 13ra  
 16 urtetik gorakoentzat  
 Izena emateko: 943 74 88 28

## [ 6 BARIXAKUA ]

**10:30 SAN FERMIN TXIKI**  
 San Bartolome eta Errosario  
 kaleetan zehar  
 Ondoren, poniak eta zezentxoak  
 eta txorizo jana  
 Plaza Handian (12:30era arte)  
 Antolatzailea: Atxuxiamaika

## ZINE

### KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN



«Spiderman III»  
 29, barixakua: 22:30  
 «Cerdos Salvajes»  
 30, zapatua: 22:30  
 «The Host»  
 6, barixakua: 22:30  
 «Las Vacaciones de Mr. Bean»  
 7, zapatua: 22:30  
 «El novio de mi madre»  
 13, barixakua: 22:30

EIBAR, UNZAGA


«Shrek 3»  
 29, barixakua: 19:30-22:15  
 30, zapatua: 17:00-19:30-22:15  
 1, domekia: 17:00-19:30-22:15  
 2, astelehena: 19:30-22:15  
 3, martitzena: 19:30-22:15  
 4, eguaztena: 19:30-22:15

BARREnek ez du gerta litezkeen  
 emanaldien aldaketen erantzukizunik.

## «Spiderman III»

Zuzendaria: Sam Raimi.  
 Antzezleak: Tobey Maguire, Kirsten Dunst.  
 Peter Parkerrek (Tobey Maguire) lortu du azke-  
 nean Mary Janekiko (Kirsten Dunst) sentitzen  
 duen maitasun neurrigabea eta superheroi gi-  
 sa dituen betebeharrak uztartzea. Dena ezin  
 hobeto zihoala zirudienean, ordea, ekaitza. Spi-  
 dermanen jantzia beltz bihurtuko da eta super-  
 heroia izaera ere aldatzen hasiko da jan-  
 tziarekin batera. Harrokeria eta gehiegizko kon-  
 fidantza erakusten hasiko da Spiderman eta  
 baita gehien maite dituenak bazterten ere.

## «Cerdos Salvajes»



Zuzendaria: Gus Van Sant.  
 Antzezleak: Tim Allen, John Travolta.  
 Lagun talde batek (Tim Allen, John Travolta, Martin  
 Lawrence eta William H. Macy) bizimoduz alda-  
 tzea erabakiko du, errotina nagusi den bizimo-  
 duari buelta ematea, alegia. Abentura handi ba-  
 tean murgilduko dira horretarako eta ez zaie gau-  
 za hoberik otuko motor bidaia bat egitea baino.  
 Errepidera ateratzen direnean, baina, errealitateak  
 gainditu egingo ditu Del Fuegos taldearekin au-  
 rrez aurre topo egitean. Hauek borrokarako beti  
 prest dauden motorzale talde oldartsua dira.

# Atzera hegira



**1935** urteko erretratu zahar

hau **Karmen Errezabalek** laga digu. Gerra Zibila baino lehenago ateratako argazkia da, 1935. urtean hain zuzen ere. Karmen eta bere familiaren baserrian aterata dago erretratu hau, Errezabalen. Arbola azpian gereziak jaten ageri zaizkigu protagonistak. Karmenekin egon gara, baina denen izenak ez ditu gogoratzen. Dena dela, argazki polita iruditu zaigu eta zuei erakustea erabaki dugu. Goian zutik daudenak **Karmen Errezabal eta Josefa (†)** dira. Beheko aldean **Dina Lasa (†)** eta Le ridako bere hiru lehengusu ageri dira.



## I. URTEURRENA

2006ko ekainaren 30ean, 84 urte zituela hil zen **Jose Agote Urain**en oroimenez urteurreneko meza izango da, larunbatean, hilak 30, arratsaldeko 19:00etan Parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde z aurretik..



## II. URTEURRENA

2005eko uztailaren 1ean hil zen **Manuela Zabala Osororen** oroimenez urteurreneko meza izango da, larunbatean, hilak 30, arratsaldeko 19:00etan Parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde z aurretik..



km.0 Europear Bermearekin eta **azkeneko autoen**  
**LIKIDAZIOA**



**MARKA GUZTIETAKO 180 AUTO ERAKUSKETAN**  
*4x4, industrialak, coupeak, monobolumenak, berlinak, familiarrak...*

Nabigazailea **OPARI**

**EKAINAK 30**

Goizean 10:00 - 14:00  
Arratsaldean 16:00 19:00

**UZTAILAK 1**

Goizean 10:00 - 14:00

AUTO GARBIKETA  
**DOAN**

**km.0** **Giauto**  
943748598

Faxa: 943748599 · Pol. Olaso, 25 ELGOIBAR · vomendaro@giauto.es

## ELGOIBAR-KANBO

**GIPUZKOA ETA IPARRALDEKO DANTZEN IKUSKIZUNA**



Ekainak 30, LARUNBATA  
19:00etan  
Foruen Plazan  
(Euria bada, Herriko Antzokian)



# TXARRIDUNA PAULANER



JATETXEA

Uztailak 5, osteguna 20:00etan  
**INAUGURAZIOA**



- Plater Konbinatuak
- Bokadiloak
- Pintxoak
- Eguneko menuak
- Menu bereziak
- Jaietarako Menu bereziak



**Alemaniar Garagardotegia**

Ermuaranbide, 1 - Tel.: 943 74 04 90